



...eta **Kitto!**


**EIBARKO EMAITZAK
2011 - XI - 20**



**ESPAINIAKO
KONGRESU ETA
SENATURAKO
HAUTESKUNDEAK**



Egun lasaia izan zen atzokoa Eibarko bederatzi hauteslekuetan. Eguerdian eta iluntzean ibili zen jende gehien.



- AURREKO ZUTABEAN, ATZO LORTUTAKO BOTO KOPURUA.
- ATZEKOAN, ORAIN DELA SEI HILABETE, UDAL HAUTESKUNDEETAN LORTUTAKOAK.

Lehenengo alderdia izaten jarraituta ere, PSE-EEren beheranzko joera Eibarren

200 botoren alde: **PSE-EE eta Amaiur** **lehia estuan**

PSE-EE EIBARKO LEHEN INDARRA DA ORAINDIK, BAINA LARRI-LARRI. AMAIURRI 200 BOTOKO ALDEA BAINO EZ ZION ATERA. EAJ-PNV-k orain dela sei hilabete galdutako botoak berreskuratu ditu eta 2008an lortutako marka gainditu. PP-ren ibilbidea ere antzekoa izan da: ia bi-koiztu egin du udal-hauteskundeetan ateratako boto kopurua. Ezker Anitzak, alderdi barruan gorabeherak izan arren, eutsi egin dio maia-tzean izan zuen emaitzari, orain dela lau urtetik hona jaitsi bada ere.

SENATUA

Gipuzkoa: Amaiur (3), EAJ-PNV (1)

Bizkaia: EAJ-PNV (3), PSE-EE (1)

Araba: PP (3), PSE-EE (1)

Nafarroa: UPN-PP (3) PSE-EE (1)

KONGRESUA

Gipuzkoa: Amaiur (3), EAJ-PNV (1), PSE-EE (1), PP (1)

Bizkaia: EAJ-PNV (3), PSE-EE (2), Amaiur (2), PP (1)

Araba: PP (1), PSE-EE (1), Amaiur (1), EAJ-PNV (1)

Nafarroa: UPN-PP (2), PSE-EE (1), Amaiur (1), Geroa Bai (1)

Oraingoak eta udal hauteskundeak ezberdinak izanda ere, atzoko emaitzak gurera ekarriko bagenu, alderdi konstituzionalistek aspalditik izan duten nagusitasuna galdu egingo lukete Eibarren: Amaiurrek (6) eta EAJ-k (5) zinegotzi bat gehiago izango lukete PSE-k (7) eta PP-k (3) baino.

Euskal Herrian PP-UPN izan da boto gehien atera duen alderdia, baina ezta hurririk eman ere Espainian lortutako aldearekin (3.000 boto atera dizkio Amaiurri). Eserlekuei begira, ostera, Amaiur da garaile, zazpi parlamentariarekin; EAJ-PNV-k jarraitzen dio, bostekin, eta gainera indar abertzaleen alorreko nagusitasuna galduta. Geroa Bai-rena da beste parlamentari abertzalea (Nafarroan abertzaleek lehen aldiz lortu dituzte bi ordezkari Madrilén). PSOE-k jaitsiera nabarmena izan du: 2008an 11 diputatu eta 5 atzo. PP-k, bestalde, orain dela lau urteko eserleku kopuruari eutsi dio: bai orduan eta bai orain 5 atera ditu.

Bestalde, Alberto Unamunzaga eibartarrak (Amaiur) senatari eserlekua lortu zuen atzo eta, bestalde, azken lau urteetan Jose Luis Vallések (PSE-EE) Madrilén zuen eserlekua galdu egin du.



EMAN CONSULTING, S.L.

APARTA, BERRIA, PRAKTIKOA eta GAURKOA

1 AHOLKULARITZA ETA CONSULTING

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa

1 GIZA ERREKURTSOAK

- Enpresako komenio eta hitzarmenak

1 PERTSONALAREN AUKERAKETA

1 STAFF OROKORRA

- 1 KRISIALDIAN DAUDEN ENPRESAK BERRIRO MARTXAN JARRI

1 AUDITORIAK

- 1 KOMENIO ESTRAJUDIZIALAK

1 ORDAIN-ETENALDIAK

- 1 ASEGURU PRIBATUAK

1 KALITATE ARAUAK



MAILAK TRUST, S.L.

TRANSAKZIO INMOBILIARIOAK
KOMUNITATEEN GESTIOA

1 ETXE ETA LOKALEN SALEROSKETA

1 ALOKAIRUAK

1 TRASPASOAK

1 BALORAZIOAK

1 PERITAJEAK

1 SUBENTZIOAK

1 KREDITU OFIZIALAK

1 BANKU KREDITUAK

J. Etxeberria, 5 (EIBAR) Tel. 943 200 336 / 943 208 778 Faxa: 943 200 342
Marqués de Valdespina, 10 (ERMUA) Tel. 943 170 451 Faxa: 943 176 901

J. Etxeberria 5 (Tel. 943 200 336 / 943 200 069 - Faxe: 943 200 342) **EIBAR**
Marqués de Valdespina 10 (Tel. 943 170 054 - Faxe: 943 176 901) **ERMUA**

emanjur@emansl.es

BOTUA EMOTERAKUAN

1.- Zelan ikusi dozu KANPAINIA? 2.- Zelako EMAITZAK espero dittuzue?



JOSE LUIS VALLES (PSE-EE)

Urkizuko eskolan eguardixan emon eban botua gaur egunian alderdi sozialistaren senadoria dan eibartarrak; ordurako jende nahikua zebillen atzera aurrera ikastetxe inguruan.



- 1.- Kanpaiñiaren gaiñian dana oso zuzen juan dala pentsatzen dot, alderdi bakotzak bere programa azaltzeko aukeria euki dau.
- 2.- Inkesta, sondeo eta bestelakuak esaten dittuenekin ez naiz ibiltzen, behin baiño gehixagotan gauza bat esan eta kontrakua urtetzen ikusi dot. Ez dot prebisiñorik egingo, errespetu faltia dala uste dot-eta.



ALBERTO UNAMUNZAGA (AMAIUR)

Oso giro lasaixa eguan 17.00etan Urkizuko eskolan, Amaiurreko hautagaixarekin (Senaturako bigarren postuan doia) galdereri erantzuteko geratuta gengozenian.



- 1.- Abertzaliak urruti ikusten dogu Madrill, ez gara horren parte sentitzen. Hangua legitimau barik, biharrezkua da han egotia, ordezkari izatia, gure eskubi-diak erreibindikatu ahal izateko.
- 2.- Emaizta onak eukitzia espero dogu, Madrillen gure ahotsa entzun deitzen. Euskal Herriko lurralde bakotzeko ordezkari bana lortzia espero dogu, gitxienez.



MIREN SOJO (EAJ-PNV)

Ixa egun guztia Urkizuko eskolan emoten badau be, Miren Sojo 11.00ak aldian juan zan berak botua emoteko mahaira, San Andres eskolako jangelara. Oindiok jende gitxi ikusten zan.

- 1.- Holakuetan pasatzen dan moduan, kanpaiña osua PSOE eta PP artian egin dabe, baiña Euskadin gauzak diferentiak dira, inportantia da gu be egotia, hamen gauzak egitteko dirua lortu eta geurera ekarri ahal izateko.
- 2.- Ez dot siñesten inkesta eta bestelakuetan. Botuak kontautu, orduan ikusiko dogu zelako emaitzak daguazen, baiña guk taldia ataratzia espero dogu.



CARMEN LARRANAGA (PP)

Goizeko lehelengo orduan juan zan botua emotera Carmen Larranaga alderdi popularreko ordezkari, Coliseo antzokiko sarrerako mahaixetako batian.

- 1.- Hauteskunde kanpaiña lasaixa izan dala begittantzen jata, ez dot aparteko gorabeherarik ikusi eta dana martxa onian, ondo juan dala pentsatzen dot.
- 2.- Emaizten gaiñeko prebisiñorik ez dot egitten, inkestak aurreikusten dabenarekin ez naizelako ibiltzen. Botuak kontau arte itxain biharko dogu, baiña Espaiñian emaitza onak izatia espero dogu.



ELI GOMEZ (Ezker Anitza)

Jende nahikua ikusten zan botua emoten eguardixan Ipurua aldian, Helduen Irakaskuntzarako Zentruan, bertan Eli Gomez Laoncharekin egon giñanian.

- 1.- Kanpaiña polarizatuta egon dala begittandu jata, betiko moduan. 2-3 alderdi bakarrik daguazela emoten dau eta ez da justua. Beste alderdi batzuek be herritarren porzentaje haundixa ordezkatzan dogu.
- 2.- Pentsatzen dogu Espaiña maillan igoera haundixa euki dabela Izquierda Unidak, baiña Euskal Herrixan, egi-xa esan, ez dogu horrenbesteko igoerarik espero.



Loterixia botua biharrian

Eguna gorabehera haundirik barik pasau zan mahai gehixenetan, baiña beti dago zeozer. Urkin, mahaixan egotia tokau jakon lagun bat, amorriziñuaren amorriziño, kolpeka kuadro bat apurtu eban. Baiña bitxikerixarik haundixenak Coliseoan zebaketa egitteko orduan topau genduazen: mahaixetako batian bigarren urna bat erabili bihar izan eben Senaturako botuak bakarrian ez zirako sartzen. Bestalde, loterixia konturatu barik sobrian sartu eban andra bat zebaketara agertu zan, bere sobria noiz zabalduko eben zain, partizipaziñuak bueltan jasotzeko. Biletia erreku-perau erreku-perau eban, baiña botua nuloa izan zan.

Senaturako baliogabetutako botuetako bat.



San Andres, 1 ac
EIBAR
943 20 34 45

GIDA-BAIMENAK Teknologia berriekin



ORDUTEGIA
09.30-13.00
15.30-20.30

5 EGUNEKO Teorikako IKASTARO TRINKOAK



HAUTESKUNDE EGOITZETAKO BOTUAK A U Z O R I K - A U Z O

	PSE-EE	Amaiur	EAJ-PNV	PP	Ezker Anitza	UPyD	Equo	Baliogabeak
Amaña	588 (%43)	231 (%17)	146 (%11)	270 (%20)	50 (%4)	16 (%1)	16 (%1)	15 (%1)
Ipurua	566 (%30)	563 (%29)	415 (%22)	192 (%10)	75 (%4)	33 (%2)	15 (%1)	17 (%1)
Coliseoa	363 (%22)	495 (%30)	464 (%28)	207 (%12)	64 (%4)	14 (%1)	26 (%2)	6 (%0)
Gerontologikoa	216 (%37)	143 (%24)	96 (%16)	87 (%15)	25 (%4)	7 (%1)	3 (%1)	3 (%1)
San Andres	548 (%23)	721 (%30)	642 (%26)	287 (%12)	87 (%4)	34 (%1)	29 (%1)	12 (%0)
Udaletxea	676 (%24)	838 (%29)	837 (%29)	324 (%11)	69 (%2)	34 (%1)	22 (%1)	21 (%1)
Urki	585 (%36)	358 (%22)	256 (%16)	259 (%16)	90 (%5)	21 (%1)	27 (%2)	21 (%1)
Urkizu	768 (%27)	738 (%26)	648 (%23)	422 (%15)	100 (%4)	45 (%2)	24 (%1)	19 (%1)
Guztira	4.310 (%28)	4.087 (%26)	3.504 (%23)	2.048 (%15)	560 (%4)	204 (%2)	162 (%1)	114 (%1)

ZENTSOA: 22.199

BOTO-EMAILEAK: 15.263

PARTE-HARTZEA: %68'75

ABSTENTZIOA: %31'25

ARGITARATZAILEA:
"...eta kitto!" Euskara Elkartea.
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar.
Telefonoak: 943-206776 / 943-200918.
www.etakitto.com

BABESLEA:
Eibarko Udala.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

LAN TALDEA:
Maider Aranberri, Juan Andres Argoitia,
Ekhi Belar, Julian Fernandez,
Silbia Hernandez, Aina Labado,
Ainhoa Luz, Koldo Mitxelena,
Aina Riveras.

KOLABORATZAILEA:
Eneko Astigarraga.

ARGAZKIAK:
Leire Iturbe.

DISEINUA / MAKETAZIOA:
Jose Luis Gorostegi.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu, Belen Ulazia.

TIRADA:
6.000 ale.

BANAKETA:
Ekhi Belar, Anartz Mitxelena.

INPRIMATEGIA:
Gertu koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A:
"...eta kitto!"

LEGE-GORDAILUA:
SS/430/92.

ISSN:
1132-1679.

"...eta kitto!"-k ez du bere gain
hartzten ale honetan adierazitako
esanen eta iritzien erantzukizunik.



ENEKO ASTIGARRAGA
(soziologoa)

Kolaborazioa

HAU EZBERDINA DA: PSE berriro irabazle Eibarren, baina PP Espainiako Gorteetan

IRUDIMENA ERABILIZ URTE BATZUK AURRERA
JOANEZ GERO, gehientzat 2011 urteko hauteskunde hauek ETaren su-eten iraunkor eta orokorrak nabarmenduko zituela begitantzen zait. Seguruenez, ETak "amaitu da" esan zueneko hauteskundeak bezala ezagutuko dira, baina Espainiaren hondoratzearenak, edo zorren eta Europako merkatuen krisiarenak, edo Zapateroren ondarearenak, edo Raxoiren gehiengoarenak bezala gogoratuak izan zitezkeen ere bai.

Iragarrita zegoen garaipena lortu du Partido Popularrak Espainian, PPK gehiengo osoa lortu du Espainiako Kongresuan eta Senatuan. Alderdi-bitasunak (PP-PSOE) ezagutarazten duen Espainiako alderdien sisteman ez da lehen aldia: Felipe Gonzalezen PSOEk hiru bider izan zuen gehiengo osoa, 1982, 1986 eta 1989 urteetan (202, 184 eta 175 diputaturekin) eta Aznarren PPK 2000 urtean (183 diputaturekin) gauza bera lortu zuen. Gobernabilitatea erraztu arren, ez da albiste ona nire ustez "tranbilarren politika" aurrera eramateko aukera eta tentazio handiegia ematen duelako.

Baina EAE eta Eibar ezberdinak dira, Espainian gehiengo osoz garaile den PP laugarren indarra baino ez da hemen. Horrela, alde txikiarekin, Eibarren PSE berriro izan da irabazle Amaiur eta EAJren aurretik. Gipuzkoan Amaiurrek irabazi du, eta EAEn, Amaiur eta EAJ izan dira irabazle, bata diputatu kopuruan, bestea botoetan. Nafarroan UPN-PP bikoteak erraz irabazi du.

Aipatu bezala, irabazi arren PSEk Eibarren lortu duen alde ez da izan inola ere 2008ko hauteskundeetan lortutakoa. 2008an PSEk 6.780 boto atera zituen eta gaur 4.310 boto bakarrik. Jaitsiera nabarmena da: ia %40 gutxiago. Amaiurren agerpena indartsua izan da, 4087 boto, maiatzeko Udal hauteskundeetan Bilduk lortutakoak gaindituz, ia PSE-EEK ateratako botoak lortuz eta, beharbada, etorkizunean gorakako joera erakutsiz. EAJk eutsi egin die aurreko hauteskundeetako emaitzei. 2008ko hauteskundeekin konparatuta, boto batzuk irabazi ditu: 3.504 boto gaur eta 3.447 aurrekoetan. PP-k ere bereari eutsi dio: 2.047 boto lortu ditu gaur eta

2.002 orain dela lau urte.

Zaila da Espainiako Gorteetarako hauteskunde emaitzak Udal Hauteskundeetara eramatea, baina maiatzeko Bilduren olatuaren ondoren, Amaiurren inguruan batutako indarren gorako joera azpimarratuko nuke. Urruti daude hurrengo Udal hauteskundeak eta zaila da jakitea Eibarren PSE ordezkatzeko gauza izango den Amaiurren gorakada, baina argi dirudi, lehen ez bezala, gaur egun hiru indar -PSE, Amaiur eta EAJ- nahiko parekatuta daudela botoen %25aren inguruan. Logikak dio datozen urteetako lanak baldintzatuko dituela bakoitzaren gorako edo beheako joera eta, ondorioz, etorkizuneko udal gobernuak.



Irribarreak
gaztetu egiten gaitu

bista eder
clinica dental - hortz klinika

Inplante eta Hortz-Estetikan adituak

Bista Eder Hortz Klinika

Bista Eder, 19 - behea

943 70 00 82 / 943 20 84 75

"Ezin ditzakegu gauzak aldatu
beti berdina egiten badugu"

www.**EstiloGráfico**.com

1990etik neurrira egindako komunikazio grafikoa

SORMENA
LAN TALDEA
WEB GUNEAK
ENPRESAKO BIDEOAK
KATALOGOAK
IRAGARKIAK
IRUDI KORPORATIBOAK
ERROTULAZIOA
ARGAZKIAK
PACKAGING-A

BALORAZIOAK

(MIGUEL DE LOS TOYOS)

PSE-EE

"Emaitzak bizi dugun errealitate eta giroaren isla dira eta kiroltasunez onartzea baino ez zaigu geratzen, irabazleari zorionak emanda. Hala ere, maila moralean min ematen duten emaitzak dira. Orohar, hauteskunde hauetan haizea kontra izan dugu eta ezker abertzaleak, berriz, alde. Hala ere, boto gehien izaten jarraitzea lortu dugu eta, alde horretatik eskerrak eman nahi dizkiegu eibartarrei."

(BEGOÑA VESGA)

AMAIUR

"Pozik gaude, "olatuaren" indarra handia da, bateratzeak duen indarra. Emandako pausuen sinesgarritasuna handia da eta fruitua eman du. Eibarko alkatetza lortzeko indarra ematen digute gaurko emaitzek. Orain arteko bidea jarraituko dugu, indarrez eta ilusioz beteta. Euskal Herrian lortutako emaitzak ikusita, herriaren iritziak errespetua lortu duela uste dugu"

(IÑAKI ZULOAGA)

EAJ-PNV

"Emaitza zoragarriak izan dira EAJrentzat Eibarren, udal-hauteskundeak kontuan hartuta. Hautesleen konfidantza lortu dugu berrero Amaiurren 'tsunamiari' eutsi diogulako herrian. Oso pozik gaude Eibarren lortutako emaitzekin. Bestela, Kongresuan talde propioa izango dugu eta hori garrantzitsua da Eibarrentzat, Madrildik gauzak ekarri ahal izango ditugulako."

(CARMEN LARRAÑAGA)

PP

"Eibarren igo egin gara eta hori oso positiboa da. Baina emaitzak, herri mailan baino, globalki begiratzen ditut. Emaitzek erakusten dute herri-tarrek ulertu digutela eta une honetan dudak poza izugarria da. Baina pozik egoteaz gainera, kezkatuta ere banago, aurretik 4 urte gogor ditugulako. Hala ere, gaitasun handiko jendearekin eta borondate onarekin gauzak ondo egin daitezkeelakoan nago"

(LUIS SANTOS)

EZKER ANITZA

"Eibar eta Euskadi mailan pozik gaude, izan ditugun barne arazoak kontuan izanda boto-emaiak kopuruei eutsi diogulako. Estatu mailan ere pozik gaude krisiaren aurrean planteatu dugun mezu alternatiboa ulertu egin delako eta talde parlamentario propioa lortu dugulako. Triste gaude, hala ere, hauteskunde lege bidegabe honen ondorioz alderdi-bitasuna mantentzen delako"

Rubalcabak sozialisten inoizko emaitzik txarrean izan ditu.



Mariano Rajoyk gehiengo absolutoa eskuratu zuen atzo.



Amaiurrek zazpi diputatu izango ditu Kongresuan.

KONGRESU BERRIA

PP (186): lehen (154)

PSOE (110): lehen (169)

CiU (16): lehen (10)

IU (11): lehen (2)

Amaiur (7): lehen (0)

UPyD (5): lehen (1)

EAJ-PNV (5): lehen (6)

ERC (3): lehen (3)

CC/NC (2): lehen (2)

BNG (2): lehen (2)

F. Asturias (1): lehen (0)

Equo (1): lehen (0)

Geroa Bai (1): lehen (1)

Alderdiak lortutako inoizko gehiengo absolutu handienarekin nagusitu da Mariano Rajoy. PSOE-k, aldiz, inoiz atera duen parlamentari kopuru txikiena izango du oraingoan. CiU (6 diputatu) eta Izquierda Unida (9) asko igo dira. Amaiur, berriz, indartsu sartu da Kongresuan. EAJ-k talde parlamentarioari eutsiko dio eta Rosa Díezen alderdiak berea izango du. Geroa Bai-k bere parlamentariari eutsi dio eta Foro Asturias eta Equo alderdi berriak parlamentari bana izango dute.

denolan, s.l.
ENPRESA AHOLKULARITZA

Tfnoa: 943 741800 / Faxes: 943 741760
P. M. Urruzuno, 31 - behea (ELGOIBAR)

Tfnoa. (4 linea): 943 20 16 80
Faxes: 943 20 18 41
E-maila: denolan@denolan.es
Muzategi, 1 (EIBAR)

Siurlan
ASEGURU ARTEKARITZA

Muzategi, 1 (EIBAR)
Tfnoa: 943 20 16 80 Faxes: 943 20 18 41

Larragest

API
353 zbk.

HELBIDE BERRIA

INMOBILIARIA AGENTZIA

Bidebarrieta, 22-24
Tf. 943 200 012
Mob.690 610 715